

## **Ondare etnografikoa**

Kulturaren Euskal Planaren Ondare etnografikoaren  
taldearen bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

<b>1. SARRERA: DIAGNOSTIKOA</b>	<b>3</b>
<b>2. AMIA ANALISIA</b>	<b>4</b>
INDARRAK	4
AHULEZIAK	5
MEHATXUAK	8
AUKERAK	8
<b>3. JARDUERA-ILDOAK</b>	<b>10</b>
LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK	12
<b>ERANSKINA: ONDARE ETNOGRAFIKOARI BURUZ TALDEAK ADOSTUTAKO DEFINIZIOA</b>	<b>13</b>

## 1. SARRERA: DIAGNOSTIKOA

Ondare Etnografikoa kontzeptuaren benetako definizioa bera eztabaidagarria eta funtsezkoa da ondarearen egoerari buruzko diagnostikoa egitean; izan ere, ikuspuntu desberdinak daude kontzeptu horrek bere baitan biltzen dituen eduki eta alderdiei buruz. Ildo horretatik, aipagarria da lantaldeko parte-hartzaileek egin duten ekarpena; Ondare Etnografikoaren definizio adostu bat egin dute denen artean. Definizio hori eranskin gisa jasotzen da txosten honen amaieran.

Badirudi aho batez onartzen dela ondare etnografikoa erakundeek gutxien baloratzen duten ondarea dela, beste ondareen aldean. Kultur proiektuentzat eta ikertzaileentzat laguntza ekonomiko gutxiago jasotzea eta zainketaz ez arduratzea adierazten du horrek. Arazo hori lotuta dago, halaber, ondare etnografikoaren garrantziaren inguruan – euskaldunon kultur ondarea eta tradizionala den heinean– dagoen aitorten sozialaren faltarekin, eta hori ez dator bat gaur egun gai batzuetan –nortasun kulturala, euskara...– dagoen sentsibilizazio sozialarekin.

Kontuan hartu behar da, halaber, ondare etnografikoak –bai eraikinek eta bai ahozko eta idatzizko ondareek– beste ondare-eremu eta/edo kultur eremu batzuekin (ondare arkeologikoa, arkitektonikoa, artisautza, etab.) gainjartzeko duen arriskua, haren jarduera-eta ikerketa-eremua behar bezala mugatzen ez bada eta ondarea babesteko legezko xedapenak ezartzen ez badira. Bestalde, ez da ahaztu behar gaur egun EAEko museo etnografikoak geldituta daudela.

Azkenik, aipatu beharrekoa da sektoreko adituen artean kezka dagoela jakintza edo ondare kognitibo etnografikoa (ahozko tradizioak, etab.) jasotzeari eta dokumentatzeari buruz, ondare hori arriskuan baitago; izan ere, ezagutza horiek dituzten pertsonak desagertzen ari dira pixkanaka.

## 2. AMIA ANALISIA

### **INDARRAK**

- Euskal ondare etnografikoa ugaria eta kalitate konparatibo handikoa da European.
- EAEn gero eta sentsibilizazio sozial handiagoa dago nortasun-ezaugarrien inguruan – herri-kultura, euskara eta ondare etnografikoa–, eta hori etorkizuneko oinarri izan daiteke.
- Oinarri kultureko, historikoko eta antropologikoko identitate-eremuak, -elementuak eta –alderdiak bilatzea hainbat mailatan (udalerrian, erakunde soziokulturaletan...)
- Hirigune handien (Bilbo, adibidez) balio soziokulturala eta turistikoa handitzea eta ekonomia suspertzea museo-ekimen eta kultur ekimen berriekin.
- Hainbat adituk lehendik zenbait alorretan irekitako ikerketa-ildoetan ikertzeko eta sakontzeko aukera: mendia eta landa, itsasoa eta arrantza eta hiria.
- Aditu euskaldunek –Telesforo de Aranzadik, Joxemiel Barandiaranek eta Julio Caro Barojak, besteak beste– eraturako oinarri antropologiko handia dago; hainbat azterketa eta lan antropologiko sustatu dituzte, lekuan bertan informazioa jasotzeko metodo aitzindariak gain (*Galdeketa etnografiko baterako gidaliburua* - J.M. Barandiaranen inkesta)
- Ondare higigarri garrantzitsua dago museo pribatu eta publikoetan, erakundeetan, instituzio publikoetan eta bilduma pribatuetan (landareen, itsasoaren, industriaurreko eta industria-aroko eremuetan), baita gure mugetatik kanpo ere. Gainera, azterketa eta lan etnografikoak aurrera jarraitzen badu, aurreko belaunaldien aipamenei esker izango da.
- Europako edozein herrialdetara esporta daitezkeen esperientzia museologikoak eta museografikoak daude.

- Ikerketetan jarduten duten eta esperientzia eta profesionaltasun handia duten entitateen, elkarteen eta adituen sare zabala dago –antropologiarekin lotuta dago eta uki ez daitekeen ondarea berreskuratzeaz kezkatuta–, eta elkarrekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzen dira azterketak, ikerketak, aldizkako argitalpen monografikoak eta bestelako ekintzak egiten.<sup>1</sup>
- Gero eta laguntza ekonomiko gehiago ematen dituzte Kultura Sailak eta foru-aldundietako kultur departamentuek Euskal Kultur Ondarea zabaltzeko, eta horiek Ondare Etnografikoarekin lotutako jarduerak finantzatzen dituzte.<sup>2</sup>
- Kultura Sailak emandako laguntzez gain, landa-inguruneko kultur ondareari balioa emateko edo leheneratze etnografikoko proiektuetarako hainbat ekimen egin dira Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Turismo Sailak finantzatuta, baita foru-aldundietako dagozkien sailek landako eta tokiko garapenarekin lotutako ekintzen esparruan finantzatuta ere.

## **AHULEZIAK**

- Azken urteetan tokiko museo gehiago badaude ere, horiek ez dute leheratze-, katalogatze-, ikertze-aretorik, liburutegirik eta langile espezializaturik. Museo etnografikoetan ikusten diren hutsune nagusiak hauek dira:
  - Ez dute ohiko bisita-ordutegirik
  - Museo askok eredu bera dute oinarri, eta, ondorioz, batzuetan bata bestearen erreplikak dira
  - Batzuetan museoen arteko proiektuak geldituta egoten dira, haien bilduma etnografikoak biltegietan egoten dira eta urtero aurreko urtekoaren desberdina den beste proiektu bat sortzen da, eta, batzuetan, etnografiarekin lotutako proiektuak bigarren lekuan egoten dira gainerakoekin alderatuta.
  - Museo enblematiko asko ixten ari dira, eta, ondorioz, ondare higigarriaren funts handi bat sakabanatuta dago.

---

<sup>1</sup> Taldea ez dago erabat ados indargune honi buruz, baina garrantzi handia eman dio antropologiarekin lotutako instituzioen sare zabala egoteari.

<sup>2</sup> Taldea ez dago erabat ados indargune honi buruz, baina garrantzi handia eman dio administrazioek laguntza ekonomiko gehiago emateari.

- Alor horretan ez dago erreferentzia-museorik, eta horrek kalte egiten dio ondare etnografikoaren balorazio sozial gero eta hedatuagoari.
  - Museo etnografikoak ez dira ikerketa-lekutzat hartzen; horregatik, museoetako bildumak oso gutxitan kontsultatzen dira ikerketa orokorrerako.
  - Oso zaila da museo bat autofinantzatzea: museo etnografikoetako bisita-kopurua jaitsi egin da, eta, ondorioz, errentagarritasuna ere bai. Gainera, autofinantzatzea eta babesleak bilatzea zaila da, babestu beharreko proiektuaren errentagarritasun soziala urria baita
- Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak ez du nahikoa xehetasunez jasotzen Ondare Etnografikoari dagokiona, haren ugaritasuna kontuan hartzen badugu; hori horrela, oso urria da haren lege-trataera. Oso bestelakoa da, ordea, adibidez, kulturako eta arkeologiako ondarea zer xehetasunekin arautzen den.
  - Gizartean gutxi baloratutako ondarea bizkor hondatzen da, hirigintza- eta eraikuntza-planen bidez eta komunikazio-bideen ibilbideengatik.
  - Lurralde historiko bakoitzean babes-politika desberdinak daude, estatu mailan desoreka dago, metodologia indibidualizatuak, irizpide heterogeneoak... daude. Koordinazioa eta plangintza homogeneoa falta dira, eta, horrela, ahaleginak eta energia aurrezteak ez da kontuan hartzen; ondorioz, ezinezkoa da eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea.
  - Lurralde bakoitzaren ezaugarri kulturalak sektore eta eremu desberdinek babestu dituzte. Ez da lurralde bakoitza osotasunean kontuan hartuta egin.
  - Administrazioaren teknikariek Ondare Etnografikoa eta Etnologikoa garrantzi txikiagokotzat jo dituzte gainerakoekin alderatuta, eta Euskal Kultur Ondarearen Zentroan Ondare Etnografikoari buruzko lanek ez dute toki handirik. Erakunde publikoen aurrekontuetan, adibidez, ez da islatzen nortasunari ematen zaion garrantzia; aitzitik, ondarearen beste alor batzuei ematen zaie lehentasuna, itxuraz ikuspuntu politikotik interesgarriagoak direnei.
  - Administrazioaren Ondare Etnografikoaren ikuspuntua hirigintza monumentalera bideratuta dago, herri-arkitekturarekin, herri-hirigintzarekin eta nekazaritzarekin eta

herriko ohiturekin lotutako materialen eremuetan egin baitira jarduerak. Horrek iragana nagusi den museo-izaera handia ematen dio.

- Ondare higigarri etnografikoa zaintzeak eta leheneratzeak ez du lehentasunik ondare-programetan, eta hartaz arduratzen direnean, ikuspuntu artistikotik, arkeologikotik eta industrialetik egiten dute; hau da, itxura morfologikoz baino ez dira arduratzen, eta objektua indargabetzen dute eta sortzeko zituen arrazoen eta xedeen ezaugarriez gabetzen dute.
- Unibertsitateei dagokienez, unibertsitateko antropologia-departamentuek ez dute parte hartzen herrian egiten diren ikerketa etnologiko eta etnografikoetan. Bestalde, titulu akademiko espezifikoak ez egoteak aukera ematen die arkeologoei edo historialariei beren jarduera-eremua etnografiara zabaltzeko (indusketa, txostena, katalogazioa, birgaitzea), etnografoaren irudia alde batera utzita.
- Euskal ondare etnografikoari buruzko jakintzaren kalitate zientifikoaren inguruan desadostasunak daude, eta topiko akritiko oso errotuak asko hedatuta daude. Gainera, ez dira Ondare Etnografikoaren eremu guztiak ikertu:
  - Euskal antropologiak ez du testuinguru ekonomikoa osotasunean ikertu: mendikoa ikertu da gehien; ondoren, arrantzaleen bizimodua; eta gutxien hiriko jokabidea ikertu da.
  - Gizarte-ereduei dagokienez, trukearena eta industrializazioarena ikertu dira gehien. Ongizatearen estatuko eta kapitalismo berantiarreko harreman sozialak askoz gutxiago aztertu dira.
- Gizartean, ez da ezagutzen etnologia edo etnografia diziplina zer den, eta horrek eragiten du gizartean kontzientziario falta eta sentsibilizazio gutxi egotea kultur ondare etnografiko eta antropologikoarekiko. Herriko eta hiriko kultura tradizionala bigarren edo hirugarren mailakotzat hartzen da, eta kontraesana da hori bere erroez harro dagoela eta herri gisa duen nortasuna defendatzen duela dioen herrian tokiko kulturak duen garrantzia kontuan hartuta.
- Euskara ez jakitea eta/edo gutxiengoak erabiltzea: ikerketak, batez ere, gaztelaniaz egiten edo argitaratzen dira, edo gaztelanitik euskarara itzultzen dira. Bestetik, ez dago hiztegi eta lexiko espezializaturik Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetan

- Ez dago ondare higigarrien inbentariarik eta katalogorik, eta higiezinak urriak dira. Euskal ondare etnografikoa higigarri zein higiezinaren bolumena eta kalitatea ez da ezagutzen. Galdeketa pertsonalak eta tokikoak bakarrik daude.

## **MEHATXUAK**

- Tradizioen berri dutenen desagertze biologikoa eta ikerketa-esparrura ezin itzultzea (informatzaileen heriotza, ondarea suntsitzea, etab.).
- Kultura tradizionalak atzera egitea, kultura industrialak desagertzea eta nazioartean kultura mediatikoa finkatzea. Kultura mediatiko horrek, ondare-mota honen garrantzia eskualdeko turismo-eremura baztertzen du (nekazaritza-etxeak, naturguneak, eko-museoak) edo jolas-elementu gisa baztertzen du.
- Une jakin batean, ondare higigarria egituratzean, gizartea erakar dezaketen alderdiak etnografiatik xehatzeko joera.
- Europan ondare etnografiko higigarria zaintzen duten nazioarteko erreferentzia-zentroak kili-kolo daude (museoak ixten, bat-egiteko hausnarketak, irudi-aldaketa...)

## **AUKERAK**

- Europako Kontseiluaren Europako Kultur Ondarearen Departamentuaz aprobetxatzea –Estrasburgon du egoitza– Euskal Ondare Etnografikoa sustatzeko; izan ere, Europako herrialdeen eta eskualdeen artean kultur ekintzak sustatzea da haren eginkizun nagusietakoa.
- Herri txikiek oso interes handia adierazten dute...
  - Beren historia ezagutzeko.
  - Herriko Kultur Ondarea eta Etnografikoa leheneratzeko.



- Ondare horri erabilera funtzionala emateko egungo gizarteak sortzen dituen itzaropen sozial eta ekonomikoen arabera.

- Ondare Etnografikoa turismo ekologikoaren bidez sustatzea, kulturak gero eta balio ekonomiko handiagoa baitu. Turismo ekologikoak lehen ez zuten garrantzia eman die toki bakoitzeko ezaugarri kulturei eta portaerei eta ezagutza etnografikoari.
- Nazioartean adostasun zabala dago, ez-kualifikatua, euskaldun izaeraren balio etnografikoari buruz, eta horrek aukera ematen du baliabide kultural eta ekonomiko gisa eta garapen-baliabide gisa aprobetxatzeko.
- Azken aukera dugu ondare etnografikoa kultura eta belaunaldiak integratzeko elementu gisa erabiltzeko, oroitzen historikoa eta kulturala berreskuratzeko gero eta handiagoa den interes sozialaz baliatuta.
- Zabaldua dagoen kontzientzia sozialaren ondorio izan daiteke eragile pribatuek eta jabeak txikiak euskal ondare etnografikoari balioa ezartzeko proiektu bateratu batean parte hartzea.
- Ondarearen Kudeaketan unibertsitatean trebatzen ari diren pertsonen kopuruaren igoera motela da, baina mailakatua.
- Etnologia da, beharbada, nortasun kolektibo nazional bat eratzean ekarpen handiena egin dezakeena, zeren aniztasunez eta osotasunez jasotzen baititu nortasunaren erroak eta iragana, baina bere burua egungo eta forma anitzeko arazoek eztabaidaren esparruan ere sartzen du; besteak beste: bakea, taldeko kide izatearen sentimendua, bazterketa, hirigintza, diglosia linguistikoa, etab.
- Ondare etnografikoa antropologian, etnomuseologian eta beste hainbat arlotan tratatzen eta ikertzen da. Antropologia sozialean, ezinbestekoa da gizartean duen balioa handitzeko bideak bilatzea, funtzionamendu-oinarri gisa ikuspuntu ekonomikoa hartuta.

### 3. JARDUERA-ILDOAK

#### 1. *Politikoak, koordinaziokoak eta ekimen publikoak.*

- Erakunde eskudunetatik, foru-diputazioetatik alegia, ondare etnografikoa babesteko aurrekontu- eta kudeaketa-lerro espezifikoa sustatzea, laguntza-partidak dituen ondarea ikertzeko, berreskuratzeko eta baloratzeko
- Iparraldeko eta Nafarroako erakundeekin eta haien museoekin lankidetzak eta koordinazioa sustatzea (adibidez, Julio Caro Baroja museo etnografikoaren kasuan, euskal etnografia lantzean Nafarroaren eremura hedatzen baita)

#### 2. *Baliabideak indartzea (trebakuntza, enplegua, lankidetzak, etab.).*

- Antropologia Sozialeko titulua eta "ondare etnografikoaren kudeaketa"-ko graduondoko ikasketen ziurtagiria aintzat hartzea alor horretan administrazio publikoan lan egiteko eskakizun gisa.
- Ondare etnografikoaren kudeaketan espezializatutako graduondoko ikastaroak antolatzea, Ikerketa Zentro Etnologikoak eta unibertsitateek sinatutako hitzarmenen bitartez<sup>3</sup>

#### 3. *Entitateak, erakunde bultzatzaileak eta enpresa-sektorea.*

- Erakunde berean sartuta dauden tokiko eta metropoliko museoaren sare batek osatutako Euskal Antropologia Museo bat martxan jartzea
- Euskal Etnologia Zentroaren barruan Etnologiaren Euskal Behatoki bat sortzea Kataluniako Agentzia Etnologikoak egiten dituen lanen antzekoak egin ditzan eta, gainera, herritarrentzat, oro har, erreferentzia izan dadin. Behatokiak Ondare Etnografikoari buruzko ekintzak eta kontsultak koordinatuko lituzke, eta interesatuak kasu bakoitzean dagokion administrazio eskudunera bideratuko lituzke

---

<sup>3</sup> Uste da etnografia praktikoa eta museistikoaren hutsunea handia dela euskal unibertsitateetako programa akademikoetan, Antropologia Sozialaren gaian.

4. *Produktuaren irizpideak eta zeharkako elementuekiko (euskara, kultura, turismoa...) harremana*

5. *Balio-kateko eta kudeaketako alderdiak.*

#### *5.1. Ikerketa eta Teknologia berriak*

- Unibertsitate, zientzia-erakundeetatik eta museo espezializatuetatik ondare etnografikoari buruzko ikerketa-, dokumentazio-, azterketa-, interpretazio- eta argitaratze-lanak sustatzea
- IKTak ondare etnografikoa hedatzeko eta sarean jartzeko tresna gisa erabiltzea, baita artxibo partikularretan eta publikoetan babestutako materialak zaintzeko ere

#### *5.2. Babestea*

- Premiazkoa da gero eta bizkorragoa den informazio-galera babestea; izan ere, materialak suntsitu egiten dira eta ondare etnologikoaren parte diren testigantzak eta jakintzak dituztenak desagertuz doaz

#### *5.3. Zaintzea eta leheneratzea*

#### *5.4. Balioa ematea eta hedatzea*

- Ekimen pribatutik edo publikotik etnografia leheneratzeko sortutako tokiko esperientziak eta proiektuak dokumentatzea eta ezagutzera ematea, ondare horri erabilera funtzional bat emateko egungo itxaropen sozialen eta ekonomikoen arabera
- Monografia etnografikoak egitea ikerketa eta katalogazio etnografikoko emaitzekin, hainbat formatutan: idatzizkoan, grafikoan, soinuak eta film etnografikokoan
- Sinposio bat antolatzea Espainiako, Europako eta Ipar Amerikako administrazio publikoetako ondare etnografikoaren egoerari eta haien tratamenduari buruz, ondorioek Euskadin jarraitu beharreko jarduera-esparrua eratu dezaten

### *5.5. Ondarearen kudeaketa-eredua hobetzea*

### *6. Kultur kontsumoa dinamizatzea eta ondarea nazioarteko bihurtzea*

## **LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK**

1. Erakunde eskudunetik, Euskal Kultur Ondarearen Zentrotik alegia, ondare etnografikoaren aurretiko inbentario bat bultzatzea, ondarea kokatu ahal izateko eta lege-babesa zuhertasunez bermatu ahal izateko. Inbentarioa metodo zientifikoekin eta diziplina anitzetakoekin egin behar da, eta balorazio-irizpideek esplizituak eta kontrastatzeko moduak izan behar dute.
2. Sektore etnografikoarentzat Plan Estrategikoa egitea administrazio publikoetatik sektorea sustatu ahal izateko
3. Euskal Zentro Etnologiko bat sortzea Kultur Ondarearen Zentroan, lehendik dagoen euskal ondare etnografikoa inbentariatzeko eta katalogatzeko, material berriak biltzeko, emaitzak zabaltzeko eta ikerketa sustatzeko, laguntzen, programen eta abarren bitartez
4. Interesgarria litzateke Eusko Jaurlaritzak ondare etnografikoari buruzko legedi xehatu bat egiten aitzindaria izatea; hala, eredu eta gidari izango litzateke beste lurraldeentzat. Legearen laguntzaz, Etnografia gehiago hartuko da kontuan bai erakundeetan bai euskal gizartean ere (adibidez, Arkeologiarekin gertatu den bezala).
5. Erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, EAE barruan eta beste erkidegoekin eta diasporarekin, eta horretan aurrera egitea.

# **ERANSKINA: Ondare Etnografikoari buruz taldeak adostutako definizioa**

## **1. Hedadura**

Komunitate bateko kultur adierazpen guztiak hartzen ditu. Komunitate baten nortasun kulturala eta soziala, arauak eta balioak adierazten ditu.

Kultur adierazpen horien adierazpen-euskarriak materialak eta materiagabeak, edo ondare higiezinak, higigarriak eta materiagabeak dira.

Etnografia egungo gizarteez arduratzen da. Baina ondare etnografikoa ez da etnografiarako interesgarriak diren gertaera eta pertsona guztietara zabaltzen. Ondare den heinean, historikotasun-/iraunkortasun-osagai erantsi bat izan behar du, horrek legitimatzen baitu (balioak kontuan hartuz) ondarea zaintzea. Bestalde, ez da iraganaren sinonimoa, iraunkortasunarena eta jarraipenarena baizik, iragana errealitate biziaren bitartez sartzen duela ulertzen badugu.

## **2. Erabileremuak eta esku-hartzeko beharrak:**

### **2.1. Iraganaren kultura materiala/oinordetzan hartua**

- 2.1.1. Lekuak: paisaia gizatiartua, lurzorua eta baliabide naturalen erabilera historikoak, lurralde-antolaketa...
- 2.1.2. Eraikinak: etxeen arkitektura, arkitektura produktiboa, komertziala, publikoa eta erlijiosoak.
- 2.1.3. Objektuak: altzariak, lanabesak, erremintak, tresna sinbolikoak edo funtzionalak... objektuen eta bizimoduen arteko harremana.
- 2.1.4. Aurrekoen eta/edo horietako bizimoduak, lan egiteko moduak eta erabilerak: nekazaritza, artzaintza, arrantza, lanbideak, garraioa, industria, jarduera erlijiosoak edo politikoak.

**Jarduerak:** inbentarioa, dokumentazioa, bilduma, berreskuratzea, balorizatzea, hedatzea, musealizazioa edo egungo biziraupena sustatzea

## **2.2. Oinordetzan hartutako kultura materiagabea (eta bizia)**

**2.2.1.** Ohitura: jakintzak, egiteko moduak, balioak.

**2.2.2.** Jarduera pragmatikoak: elikadura, jantziak, teknikak eta lanbideak. Eramailleek eskuratutako jakintza- eta esperientzia-multzoa.

**2.2.3.** Adierazpen-ekintzak edo gertaera sinbolikoak: interes etnografikoko jarduera biziak (egungoak): hizkuntza, jaia, dantza, jokia, musika, paraliterarioak (ipuina, kondaira, kanta, mitoa...), herri-lehia, erlijiozkotasun tradizionala...

**Jarduerak:** ikerketa sustatzea, dokumentatzea, behar bezala berreskuratzea edo egungo biziraupenari laguntzea, hedapena bultzatzea edo bideratzea.